



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 24a

9. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributueta duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2020. urterako (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Interpelazioa, Nafarroako errepideen sarearen finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazte enpleguari eta ekintzailtzari buruzko plan bat eta gazte talentudunak itzultzeko plan bat ezar ditzan. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren araudi-aldaketak egin ditzan, halatan 65 urte baino gehiagoko pertsona zaharrek modua izan dezaten alokairu babestuko eskaintzan parte hartzeko, baita jadanik etxebizitza baten jabe direnean ere, baldin eta etxebizitza hori Nasuvinsa sozietate publikoak kudeaturiko Alokairu Poltsaren programarako lagatzen bada. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikerketa-batzorde bat eratu dezan Nafarroako ikastetxe erlijiosoetan egindako abusuak argitzeko. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz dei diezaien Nafarroak Transferentzia Batzordean dauzkan ordezkariari, trafiko eta bide-segurtasunaren arloko eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea gauzatzeko, halako moduz non trafikoko Guardia Zibila ez den gabetuko egun dituen eginkizunez. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non eragotzi eginen baita adingabeei egindako sexu-abusuen delituen preskripzioa, edo gehieneko preskripzioeak handituko baitira. Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztu du (15. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da beharrezkoa den araudia alda dezan, erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen irakaskuntzaren ordu-zama estatu-mailako araudiak ezartzen duen nahitaezko minimora murriztu dadin. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordu-muga bat ezar diezaion azalera handiko saltokien irekialdiari, eta Espainiako Gobernua premia dezan autonomia erkidegoen eskuetan uztera igande eta jaiegunetako irekialdien zehaztapena. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, erakunde publikoak premiatzen dira lurralde kohesioari eta gizarteari begira bidea ditzaten tren-inbertsioetara bideratuta dauden baliabideak. Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztu du (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen baitio Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa erretira dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzen baitu Voxek aldarrikaturiko eta PP eta Ciudadanosek aldezturiko hezkuntza-zentsura ezartzea. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak, txera eta amultutasuna adierazten baitizkio Aiegiko zortzi eta bost urteko Ixeya eta Daniel Pérez Pascual haurren familiari, haiek hilik gertatu ziren-eta joan den ostiralean Lizarran izandako talka izugarriaren ondorioz. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Nafarroan despopulazioaren ondorioak leuntzeko jarduketei eta horien kostuari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Erresuma Batuko Brexitarengatik ekintzei eta kostu ekonomikoari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, talentudunen itzulerari eta “Estrategia Next” izeneko ezarri zenetik izandako emaitzei eta lortutako helburuei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, sorkuntza artistikoa sustatzeko politiken arloko jarduketa-ildo nagusiei eta ekimen berriei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, Barañaingo Auditorioaren funtzionamenduari eta kultur programazioari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, ARCO nazioarteko arte garaikidearen azokari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren eta korporazioa osatzen duten 16 sozietateen egituren zerbitzuko langileei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Uxueko monumentu-multzoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (26. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2020. urterako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko urtarrilaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: "Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2020. urterako".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Aipatu foru lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea (10-20/LEY-00002).

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proiektua,  
toki ogasunek transferentzia arrunten  
eta beste laguntza batzuen  
kontzeptuetan Nafarroako tributue-  
tan duten parte-hartzearen funtsaren  
zenbatekoa eta banaketa ezartzen  
dituen 2020. urterako**

**ZIOEN AZALPENA**

Espainiako Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen duenez, toki ogasunek behar adinako baliabideak izanzen dituzte legeak korporazioei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko eta, funtsean, beren tributuez eta Estatuarenetan eta autonomia erkidegoenetan parte hartuz hornituko dira.

Nafarroak eskumena du toki ogasunei dagokien arloa arautzeko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua arabera.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 259. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta beren esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkie; baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege baten bidez arautuko dira, Nafarroaren toki araubideari dagokion gaia baita.

Aurrekoa betetzeko xedez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. artikuluan ezartzen da ezen toki ogasunak hornituko direla, beste baliabide batzuen artean, beren tributuez eta Foru Komunitatearenetan eta Estatuarenetan duten parte-hartzeaz.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan, berriz, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak emandako testuan, ezartzen da Nafarroako udalerriek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako Ogasun Publikoaren zerga-sarreretan parte hartuko dutela, sarrera guztien portzentaje finko bat hartuz urtero.

Portzentaje hori Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen foru legerian ezarriko da, eta, behin Nafarroako Foru Komunitateak Estatuari egin beharreko ekarpen ekonomikoa kenduta, kalkulatu da Nafarroako toki entitateen eta Foru Komunitateko Administrazioaren artean une bakoitzean indarra duen eskumen-banaketaren arabera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat.

Xedapen horrek ezartzen du, besteak beste, 2019ko abenduaren 31 baino lehen Nafarroako Gobernuak finantzaketa proposamen bat igorriko duela Nafarroako Parlamentura, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan gaur egun jasotzen diren dirulaguntza finalisten ordeztoki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikuluko 2. apartatuko a) letran aurreikusitako finantzaketa moduluak progresiboki ezartzeko.

Toki entitateei kalte ez egiteko, eta 2020an udal zerbitzu publikoen finantzaketaren jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatzeko, beharrezkoa da egungo ereduari jarraipena emanen dion foru lege bat onestea, abenduaren 27ko 18/2017 Foru Legean finkatutako printzipioak eta irizpideak mantenduko dituen, finantzaketa sistema berria garatzea ahalbidetuko duten arau aldaketak gauzatu arte; izan ere, parte-hartzearen portzentajea eta funtsaren banaketa zehazteko, behar-beharrezkoa da lege garapena, oraindik egin gabe dagoena.

Foru lege honek ezartzen du, lehenengo eta behin, zein den toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbateko osoa.

Aurreikusirik dago toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa 2020ko ekitaldian aurrekoan baino % 3,08 handiagoa izanen dela, hau da, Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoko prezioen indizeak (KPIa) 2018ko ekainetik 2019ko ekainera izandako bilakaeraren portzentajea gehi bi ehuneko-puntu.

Horrez gain, bere horretan mantentzen da Nafarroako udalek jasaten duten montepioaren

defizita arintzeko ekarpena, 6.400.000 euroko zenbatekoa egiten duena, % 4,92ko igoera egin ondoren.

Proposatutako banaketa formulak berme sistema bat ezartzen du; horren bidez, udal eta kontzeju guztiek gutxieneko zenbateko bat jasoko dute, 2019ko kopurua adinakoa, eta horri gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta beste ehuneko-puntu gehigarri bat. Formula horrek kopuru teoriko handiagoa esleitzen duenean, erdiesterik ez dagoena, zati proportzionala aitortuko da, aurrekontuko muga osatu artekoa.

Iruñeko Udalari "Hiriburutza Agiria" izeneko kontzeptuan dagokion zuzkidurak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari dagokionak 2019an emandako kopuruak dituzte, eta horietako bakoitzari gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

Berritasun nagusia da desagertzen dela hautesiei ordainsariak ematea erabakitzen duten udalei egiten zaien ordainketaren izaera konpentsatzailea eta finalista; haren ordeztoki, urteko ekarpen finko bat ezartzen da, Nafarroako udal guztiek jasoko dutena haien hautetsi kopuruaren arabera, ordainsariak jasotzea justifikatu beharrik gabe.

Ekarpen horren zenbatekoa kalkulatu da 2019an udalkideen gastuak konpentsatzeko erabiltako zenbatekoarekin, eta horri gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

Beste alde batetik, montepioen defizita finantzatzeko prozedura errazten da, eta berariaz ezarri ezen, Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan duten parte-hartzearen Funtsean, transferentzia arrunten kontzeptuan, esleitutako kopuruak ordaintzean, baldin badaude udalen eta haien mugartean dauden kontzejuen artean izenpetutako hitzarmenak, entitate horientzako ordainketak izenpetutako hitzarmenean ezarri bezala egiten ahalko direla, bertan hala ezarrita baldin badago.

## I. KAPITULUA

### Zuzkidura orokorra eta eguneratzea

#### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honek 2020. urterako arautzen ditu toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-

hartzearen funtsaren zuzkidura eta banaketa, transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuei dagokienez.

**2. artikulua.** Funtsaren zuzkidura 2020ko ekitaldirako.

2020ko ekitaldi ekonomikorako, toki ogasunek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zuzkidura, transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan, 236.356.409 eurokoa izanen da hasiera batean.

**3. artikulua.** Funtsaren banaketa.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa, 2020ko ekitaldikoa, honela banatuko da hasiera batean:

1. Transferentzia arruntak: 197.384.777 euro.

2. Beste laguntza batzuk:

a) Montepioen defizitaren finantzaketa: 6.400.000 euro.

b) Iruñeko Udalari, "Hiriburutza agiria" delakoa-gatik: 26.036.907 euro.

c) Nafarroako udalei, udalkideen kopuruagatik: 6.100.000 euro.

d) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 434.725 euro.

**4. artikulua.** Aurrekontu-kontsignazioa.

1. Nafarroako 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorretan agertuko da zenbatekoa den toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoko tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren kontsignazioa.

2. Funtsean 2020. urterako Transferentzia arrunten kontzepturako kontsignatu den zenbatekoa 197.384.777 eurokoa da.

3. Funtsean 2020. urterako Iruñeko Udalarentzat, Hiriburutza Agiriaren kontzepturako, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzat kontsignatutako zenbatekoa 2019an finkatutako bera da, eta horri gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

4. 2020. urterako, funtsean udaletarako kontsignatu den zenbatekoa, udalkideen kopuruagatik eman beharrekoa, 2019an hautetsien ordainsarien konpentsazioaren kontzeptuan ezarritakoa da, eta horri gehituko zaio, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera bitarteko Nafarroako Foru Komu-

nitateko KPIa, ehuneko-puntu bat alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

5. 2020ko ekitaldian montepioen defizita finantzatzeko, funtsean kontsignatutako zenbatekoa honakoek osatuko dute:

a) Montepio Orokorraren Finantzaketaren zenbatekoa, udalen artean banatzen dena populazioaz beste irizpide batzuen arabera: zenbateko bat ezarriko da, kontzeptu honetan udalen artean banatu beharreko defizitari soldata-masaren ehuneko hogeita hamabi adinako zenbatekoa kentzearen emaitza izanen dena (soldata-masa hori defizita finantzatzen den ekitaldian montepioen araubidearen menpe dauden jarduneko langileei dagokiena da, mendekoak nahiz administrariak izan).

b) Iruñeko, Tafallako eta Tuterako udaletako montepioetako klase pasiboen urteko kostu garbi orokorra finantzatzeko portzentajeak berdinak direla bermatzeko helburua duen finantzaketaren zenbatekoa.

## II. KAPITULUA

### Transferentzia arrunten esleipena

**5. artikulua.** Udalerrientzako banaketa formula.

2020ko ekitaldirako, udalerrientzako banaketa formula prozedura honen bidez lortzen da:

a) Lehen fasean, gastu premien indizea lortuko da gastu premia adierazten duten sei aldagaien konbinazio linealaren bidez, haietako bakoitzak gastu hori azaltzeko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: entitate bakoitzeko populazioa, hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera osoa eta populazio indizearen alderantzizkoa.

b) Bigarren fasean, udalerrien ahalmen fiskala eta ondarekoa adierazten duten bost aldagaien konbinazio linealaren bidez lortuko da ahalmen fiskalaren indizea, aldagai haietako bakoitzaren eskubide likidatuek bost sarrera motetako eskubide likidatu guztiekiko duten garrantziaren arabera ponderaturik. Honako aldagai hauek erabiliko dira: lurraren gaineko kontribuzioaren oinarri fiskalak, jarduera ekonomikoen gaineko zergarenak, trazio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarenak eta herri-lurren katastro-balioa.

c) Azkenik, gastu premien indizeari kentzen zaio ahalmen fiskalaren indizea 0,3491 faktorearekin ponderatuta eta formula hau aterako da;

$$FTC = 0,9231 \times PPOB + 0,1278 \times PMA65 + 0,3355 \times PURB + 0,1341 \times PPINM + 0,0083 \times PINVDISP + 0,0074 \times PSUP - 0,2490 \times PCTU - 0,0222 \times PCTR - 0,0760 \times PIAE - 0,0995 \times PIVTM - 0,0895 \times PVCC.$$

Bertan:

FTC da udalerrri bakoitzaren banaketa indizea.

PPOB da udalerrri bakoitzeko populazioa adierazten duen portzentajea, Nafarroako populazio osoarekiko.

PURB da udalerrri bakoitzaren hiri azalera garbia adierazten duen portzentajea, Nafarroako hiri azalera garbi osoarekiko. Planoaren arabera azalaren (azalera grafikoa) eta lurzati batura modura hartutako azalaren (azalera alfanumerikoa) arteko diferentzia da hiri azalera garbia.

PMA65 da udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen portzentajea, Nafarroan 65 urte edo gehiago dituzten biztanle guztiekiko.

PPINM da udalerrri bakoitzeko etorkinen kopurua adierazten duen portzentajea, Nafarroako etorkinen kopuru osoarekiko.

PINVDISP da populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa adierazten duen portzentajea, honela kalkulatu: udalerrri bateko bizigune bakoitzeko populazioak populazio osoarekiko egiten duen portzentajeen koadroen batura, Nafarroa osoko populazioaren kontzentrazioaren indizeen alderantzizkoen baturarekiko.

PSUP da udalerrri bakoitzaren azalera osoa adierazten duen portzentajea, Nafarroako azalera osoarekiko.

PCTU da udalerrri bakoitzaren hiri-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarri doitua adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoan tributu horren likidazio-oinarri doituen baturak egiten duenarekiko. Oinarriak merkatu balioen arabera doitzen dira koefiziente zuzentzaile baten bidez; koefiziente horrek balioak handitzen ditu merkatu balioekiko duten uruntasunaren arabera. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak finkatuko du koefiziente zuzentzaile hori etxebizitzentzat.

PCTR da udalerrri bakoitzaren landa-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoko landa-lurren likidazio-oinarri guztien baturarekiko.

PIAE da udalerrri bakoitzaren jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren oinarri-kuota adierazten

duen portzentajea, Nafarroa osoko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren kuoten baturarekiko; betiere, nazio, lurralde nahiz udal esparruetako kuoten batura hartzen da oinarri-kuotatzat, udal errenergia kenduta.

PIVTM da udalerrri bakoitzean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak adierazten dituen portzentajea, Nafarroa osorako zerga honen eskubide likidatu guztiekiko.

PVCC da udal bakoitzean herri-lurren katastroko balioa adierazten duen portzentajea, Nafarroako udalerrrien balio guztiekiko. Udal-mugartean kontzejuak dituzten udalen kasuan, kontzejuetan kokaturik ez dauden herri-lurren balioa baizik ez da hartzen kontuan.

## 6. artikulua. Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako udal eta kontzejuen arteko banaketa kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak foru lege honen eranskinean aipatzen diren iturrietatik lortuko dira. Populazioaren gaineko estatistikako azken datu ofizialak zer urtetakoak diren, urte hori izanen da aldagai guztien erreferentziako urtea.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa ukatu gabe, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergako datuak azken ekitaldiko kontuen espedientetik aterako dira, zeina Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen arabera aurkeztua beharko baitu Lurralde Kohesiorako Departamentuan, edo, bestela, ekitaldi horretako bereko aurrekontuaren likidazio espedientetik, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 227.2 artikuluan eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori hala ez bada, eskura dagoen azken daturik berriena eguneratuko da, urteko 100eko 10eko igoera aplikatuz. Aurreko hiru ekitaldietako daturik ez bada, Nafarroako "per capita" daturik handienaren arabera kalkulatu da, biztanleriaren aldagaia oinarritzat hartuz.

7. artikulua. Katastroko balorazio txostenak gaurkotzea.

Udal bakoitzari 2020rako dagokion zenbatekoa banatzean, katastroko balioak gaurkotu gabe badituzte, edo indarreko legeriarekin bat udal-mugartean aplikatu beharreko balorazio txostena berrikusteko prozesua hasi gabe badute, transferentzia arrunten kontzeptuan jaso behar duten zenbatekoa %10 murriztuko da.

Murrizketa horiek transferentzia arrunten funts orokorretik gainerako toki entitateei banatzen zaiona gehituko dute.



**8. artikulua.** Udalentzako hasierako esleipena.

1. Udal mailako banaketa-indizea aterako da aurreko 5. artikuluan aipatzen den formula udalerrri bakoitzeko aldagaien balioei aplikatuz.

2. Udalerriren batentzat ateratzen den banaketa-indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta berriz kalkulatuko dira gainerako udalerrientzako banaketa-indizeak, haien guztien batura 1 izan dadin.

3. Banaketa-indize hau kasuan kasuko ekitaldiko transferentzia arrunten zenbatekoaren gainean aplikatuko da, udalerrri bakoitzari hasieran dagoen diru-esleipena lortzeko.

**9. artikulua.** Kontzejuentzako hasierako esleipena.

Kontzejuak dituzten udalerrietan, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera udalerrri horiei esleitutako partaidetzatik parte bat kenduko zaie, kontzejuen artean banatzeko.

Entitate horien hasierako partaidetza kalkulatzeko, kasuan kasuko udalaren zuzkidura 100eko 30ez biderkatuko da, eta hori berriz ere biderkatuko da kontzejuko biztanleen kopuruak udalerriko biztanleria osoarekiko egiten duen proportzioaz. Udalerrriaren hasierako esleipena gelditzen den kopurua izanen da.

**10. artikulua.** Berme klausularen aplikazioa udal eta kontzejuetarako.

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatuz udalek eta kontzejuek jaso beharreko zenbatekoa ez da izanen, inola ere, batura honek egiten duen zenbatekoa baino txikiagoa: haietako bakoitzak 2019ko ekitaldian transferentzia arrunten funtsaren banaketan jasotakoak, gehituta, batetik, 2018ko ekainetik 2019ko ekainerako bitarteko Nafarroako Foru Komunitateko KPIa, ehuneko-puntu bat, alegia, eta, bestetik, ehuneko-puntu gehigarri bat.

2. Baldin eta funtseko partaidetza, udalerrri edo kontzeju bati hasieran esleitu zaiona transferentzia arrunten kontzeptuan, ez bada iristen aurreko apartatuan ezarritako zenbateko bermatura, hasiera batean esleitutako kopurua bermatutakotik gorakoa duten udalerriei eta kontzejuei behar diren kopuruak kenduko zaizkie, bakoitzari dagoen kopuru bermatutik gora lortu dutenaren proportzioan.

**11. artikulua.** Ordainketa.

1. Behin betiko onetsi ondoren 2020. urtean Toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen Funtsaren banaketa, transferentzia

arrunten kontzeptuan esleitutako kopuruak ordainduko dira bi alditan, otsaileko eta abuztuko lehen hamabostaldietan.

2. Lehen ordainketaren zenbatekoa aurreko ekitaldian jasotako zenbateko osoaren erdia adinakoa izanen da.

3. Bigarren ordainketa egin aurretik, urteko behin betiko diru-esleipena kalkulatuko da, eta lehen ordainketaren eta jaso beharreko zenbateko osoaren arteko diferentzia ordainduko da.

4. Udalerrien eta haien mugarteko kontzejuen artean sinatutako hitzarmenik badago, hitzarmenean ezarrita egonez gero ordaintzeko modua, hala ordainduko zaie entitate horiei, deusetan ukatu gabe hasiera batean toki entitate bakoitzari dagoen ekarpenaren zenbatekoa banaketa-formula aplikatuz kalkulatzeko.

**12. artikulua.** Hiriburutza Agiriarengatik ordainketa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzaren ordainketa.

Iruñeko Hiriaren Agiriarengatik ordainketa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzaren ordainketa aurreko artikuluan transferentzia arruntetarako aurreikusitako modu berean egingen dira.

**13. artikulua.** Nafarroako udalentzako ordainketa udalkideen kopuruagatik.

1. 2020. urterako, urteko ekarpen ez finalista bat ezartzen da, Nafarroako udal bakoitzak jasoko duena bere hautetsi kopuruaren arabera, legeria orokorrarekin bat.

Hau izanen da ekarpen hori:

- A) 3 zinegotzi dituzten udalak: 4.669,07 euro.
- B) 5 zinegotzi dituzten udalak: 12.025,13 euro.
- C) 7 zinegotzi dituzten udalak: 17.684,11 euro.
- D) 9 zinegotzi dituzten udalak: 21.221,36 euro.
- E) 11 zinegotzi dituzten udalak: 33.953,72 euro.
- F) 13 zinegotzi dituzten udalak: 58.711,56 euro.
- G) 17 zinegotzi dituzten udalak: 89.836,03 euro.
- H) 21 zinegotzi dituzten udalak: 128.741,47 euro.
- I) 27 zinegotzi dituzten udalak: 215.747,46 euro.

2. Baldin eta soberakinik gertatzen bada udalkideen kopuruagatik ordainketak egiteko kon-

tsignazioan, guztira likidatutako kopuruarekiko, soberakinak montepioaren defizitari aurre egiteko finantzazioari gehituko zaizkio.

3. Baldin eta defizita gertatzen bada udalkideei kopuruagatik egin beharreko ordainketetarako kontsignazioan, likidazioa egiteko behar den diru kopuruarekiko, modu proportzionalan murriztuko dira artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako ekarpenak, 2020ko ekitaldiko aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren mugarekin.

4. 2020ko maiatzaren 1a baino lehen, udalek aurkeztu beharko dute ziurtagiri bat frogatzeko Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzeen funtsetik hautetsien dedikazioaren kontzeptuan egindako ordainketak konpentsatzeko 2019an jaso dituzten ekarpenen zenbatekoa eta erabilera.

2020ko ekitaldian jaso beharreko zenbatekoa aldi bakar batean ordainduko da funtsaren bigarren zatiarekin batera. Zenbateko hori izanen da artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako zehaztapenei behar diren doikuntzak aplikatzearen emaitza, bai azken udal hauteskundearen ondorioz udalkideen kopuruan izandako aldaketek eragindakoak bai 2019ko ekitaldian esleitutako kopuruak baino txikiagoak diren gastu justifikazioek eragindakoak.

**14. artikulua.** Montepioen defizitaren finantzaketa.

Nafarroako udalei montepioen defizitagatik eman beharreko finantzaketa honela eginen da:

1. Montepio Orokorren defizita zehazteko organo eskudunak eginen du banaketa udalen artean, populazioaz beste irizpide batzuk kontuan hartuta.

Udal bakoitzari egotzitako defizitari (jardunean dituen menpeko langileei eta administrariei dago-kiena) soldata-masaren ehuneko hogeita hamabi adinako zenbatekoa kenduko zaio, udalak berak ordaindu beharrekoa, eta gainerakoa parte-hartzeen funtsaren kargura finantzatuko da.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak abuztuan eginen du ordainketa, funtsaren bigarren zatiarekin batera.

2. Behin organo eskudunak defizita finkatu ondoren, Iruñeko, Tafallako eta Tuterako udalek beren montepioen finantzaketan lagunduko dute, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean ezarritako portzentajeekin bat. Udal horietako batek, foru lege horretan ezarritako gehiengo kopuruak gainditzeagatik, gainerako entitateek

baino finantzaketa portzentaje txikiagoa jaso behar badu, gainerako entitateek ere finantzaketa portzentaje txikiagoa jasoko dute, haien defizitaren finantzaketa baldintza berdinetan egiteko moduan.

Baldin eta, guztira likidatutako kopuruarekiko, soberakinik gertatzen bada montepioen finantzaketarako 2020ko ekitaldiko kontsignazioan, soberakinak gehituko zaizkio transferentzia arrunten funts orokorrari.

Baldin eta, likidazioa egiteko behar den diru kopuruarekiko, defizita gertatzen bada montepioen defizitaren finantzaketarako 2020ko ekitaldiko kontsignazioan, eta posible ez bada udalkideengatik egin beharreko ordainketetarako aurrekontu kontsignazioaren krediturik erabiltzea hura banatu ondoren, modu proportzionalan murriztuko dira toki entitate bakoitzarentzako ekarpenekiko, 2020ko ekitaldiko aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren mugaraino.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

## ERANSKINA

### Aldagaiak eta aplikazio iturriak banaketa formularen

1. Udalerri bakoitzaren biztanleria. Estatistika-konstituzio Nazionalak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

2. Kontzeju bakoitzaren biztanleria. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

3. Udalerri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleak. Estatistikako Institutu Nazionalak ematen duen datua, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

4. Hiri azalera garbia. Planoan ageri den azalera (azalera grafikoa) ken lurzati baturak duen azalera (azalera alfazenbakizkoa). Nafarroako Gobernuak Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak ematen du datu hori, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera da.

5. Etorrinak. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

6. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak emandako azalera osoa.



7. Populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuekin urte bakoitzerako kalkulatu.

8. Hiri-lurren gaineko kontribuzio doituaren likidazio-oinarria. Udalerri bakoitzeko hiri-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria, merkatuko balioei doitzeko koefizienteaz biderkatua. Bi horiek Nafarroako Gobernuko Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak ematen ditu, Nafarroako Lur-ondasunen Erregistro Fiskaleko datuak harturik, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera da.

9. Udalerri bakoitzeko landa-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria. Nafarroako Gobernuko Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak ematen du, Nafarroako Lur-ondasunen Erregistro Fiskaleko datuak harturik, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera da.

10. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri kuota. Nazio kuoten, lurralde kuoten, lokal finkorik gabekoen udal kuoten eta lokal finkoa dutenen udal kuoten batura da, azken horretan udal errekarua kenduta. Datu hauek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Jarduera Ekonomikoen Erregistroak emandakoak izanen dira.

11. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak. Udalek Lurralde Kohesiorako Departamentuari igorritako kontuen likidazioetatik lortzen da. Igortzen ez baditu, zerbatespen bat aplikatuko da, foru lege honetako 6. artikuluko 2. apartatuan ezarritako irizpidearekin kalkulatu.

12. Herri-lurren katastroko balioa. Hori da, Nafarroako udalerri bakoitzarentzat, herri-ondasunen eta haietatik datozenen katastro-balioa, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera da. Kontzejuak dituzten udalerrien kasuan, ez dira sartzen kontzejuen titulartasuneko herri-ondasunak. Balio hori Nafarroako Gobernuko Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuak ematen du, eta Nafarroako Lur-ondasunen Erregistro Fiskaleko datuak hartzen ditu.

13. Montepioa. Udalerrietan jardunean dauden menpeko langileen eta administrariaren soldata-masa langile horiek kontzeptu guztietan lortutako ordainsari gordin guztiek osatzen dute. Datu horiek Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Gizarte Prestazioen Zerbitzuak emanen ditu.

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, Nafarroako errepideen sarearen finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako errepideen sarearen finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa, Nafarroako errepideen sarearen finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko plan bat eta gazte talentudunak itzultzeko plan bat ezar ditzan.**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko plan bat eta gazte talentudunak itzultzeko plan bat ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren

babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gazte enpleguari eta ekintzailetzari buruzko berariazko plan bat eta nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezar ditzan.

Krisia hasi zenetik, Nafarroak 36900 gazte-enplegu galdu ditu, 2008an erregistratutako enpleguen % 35 (3 enplegutatik 1).

2019ko hirugarren hiruhileko biztanleria aktiboen inkestaren datuen arabera, kezkarriak dira gazteen langabeziari buruzko datuak: langabezia-tasa % 30ekoa da, Nafarroako Foru Komunitateko langabezia guztiaren % 45,17.

Gazte-enplegu ugari suntsitu da; enplegu horrek bi ezaugarri nagusi ditu:

1. Behin-behinekotasun tasa handia (lana duten gazteen % 48).

2. Lanpostuen aldi baterakotasuna.

Aurreko legegintzaldian Nafarroa izan zen Enplegu Plan bat –eta hortaz, gazte-enpleguari buruzko berariazko plan bat– ez zeukan erkidego bakarra.

Une honetan dugun albiste bakarra da Parlamentu honek orainsu onetsitako mozioa, zeinaren bidez eskatzen baita Elkarriketa Sozialerako Kontseilurako deialdia egin dadila “lehenbailehen”, urtebeteko epean onetsi ahal izan dadin Nafarroako enplegu plan berria.

Hau da, lau urte eta erdi daramagu planik gabe, eta horri beste urtebete gehi dakioke plana abian jarri arte. Ez da posible.

Langabezia da nafarren arazo nagusia. Eta bereziki, gazteena. Gazte batentzat etsigarria eta frustagarria da ikasketak bukatuta edukitzea eta lanik aurkitzen ez duelako gurasoen etxetik ezin alde egitea bere bizi-proiektuari segida emateko.

Guretzat, gaurko egoera eta gazteen kolektibolari eragiten dioten arazoak ikusita, funtsezkoa da Gazte enpleguari eta ekintzailetzari buruzko berariazko plan bat eta Nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat egotea, gure hauteskunde-programan jasotzen genuen bezala.

A.- Gazte enpleguari eta ekintzailetzari buruzko berariazko plana:

Helburu nagusiak:

– Gazte enplegua eta ekintzailetza sustatzea.

– Enplegarritasuna hobetzea gazteen ezauzgarriekiko berariazko jarduketekin.

– Enpleguaren kalitatea hobetzea.

– Adin-tarteen araberako langabezia-tasen arteko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerraraztea.

Honako hauen bidez: orientabide personalizatua, banan banako ibilbideak, enpresen eta gazteen beharrezanetara bideratutako prestakuntza, gazteak kontratatuzko pizgarriak – bereziki, kontratu mugagabeak–, Unibertsitateetara eta LH Dualera bideratuta, enpresen munduaren eta gizartearen arteko harremanekin.

Kolektibo ahulenengan ere jarrita arretagunea, genero-arrakala, landa-ingurunea eta erronka demografikoa, gazte migratzaileak aintzat hartuko dituen ekintzekin, eta aldaketa sozial eta teknologikoak kontuan hartuta.

Hezkuntza-mundutik lan-mundura iragateko berariazko programa bat garatuta LHko ikastetxeekin eta unibertsitateekin batera.

Ekonomia eta Hezkuntza departamentuen eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren arteko lankidetzarako egitura bat sortzea, ekintza bateratuko planen bidez gazteen enplegarritasuna sustatzeko.

Gazte-ekintzailetza babestea enpresa-prestakuntzako ikastaroak doan emanez eta gazteek sustaturiko enpresen bideragarritasunari buruzko gastuetarako eta azterlanetarako dirulaguntzak emanez. Enpresa sortu berrien administrazio-izapideak sinplifikatzea, eta enpresa berriak sortzea ahalbidetuko duen politika fiskal bat baliatzea, berrikuntza eta gazte-ekintzailetza sustatuz.

B.- Gazte talentudunak itzultzeko plana:

Honako neurriak jasoko ditu, besteak beste: atzerrian dauden nafar gazteak Nafarroan kontratatzea ahalbidetuko duen laguntza-lerro bat ezartzea eta itzultzeko behar den informazioa emanen duen webgune bat sortzea.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Gazte enpleguari eta ekintzailetzari buruzko plan bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Gazte talentudunak itzultzeko plan bat abian jar dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren araudi-aldaketak egin ditzan, halatan 65 urte baino gehiagoko pertsona zaharrek modua izan dezaten alokairu babestuko eskaintzan parte hartzeko, baita jadanik etxebizitza baten jabe direnean ere, baldin eta etxebizitza hori Nasuvinsa sozietate publikoak kudeaturiko Alokairu Poltsaren programarako lagatzen bada.**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren araudi-aldaketak egin ditzan, halatan 65 urte baino gehiagoko pertsona zaharrek modua izan dezaten alokairu babestuko eskaintzan parte hartzeko, baita jadanik etxebizitza baten jabe direnean ere, baldin eta etxebizitza hori Nasuvinsa sozietate publikoak kudeaturiko Alokairu Poltsaren programarako lagatzen bada.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroak proiektu muntadunak abiarazi ditu azken urteotan, etxebizitza-politika berritzaileen eskutik eta ikusmolde berriak txertatuz hirigintza-planeamenduan, garapen jasangarrirako eta hiri-jasangarritasunerako europar estrategien ildoari eta 2030 Agendako garapen jasangarriko helburuei jarraikiz.

Halaber, Foru Komunitateak esparru propioa dauka legegintzan, ekonomian eta fiskalitatean, eta horretatik abiatuta departamentuarterko zeharkako apustua egin du azken urteotan jasangarritasunaren alde, bitarteko, plan eta proiektu ugariaren bidez.

Estrategia integral horrek, osagarri modura, beharrezko ditu zenbait neurri, gizarte-berrikuntzaren faktorea etxebizitza-politikaren alorrean txertatuko dutenak, hainbat kolektiboren errealitate eta eskakizun berri eta askotarikoei erantzuteko: gazteenak, zaharrenak, familia behartsu edo gurasobakarrenak. Halaber, beharrezkoak dira etxebizitza bat eskuratzeko formula berriak, baita ordezeko bizileku-ereduak probatzea ere.

Testuinguru horretan, biztanleriaren sektore jakin batzuen –zehazki, pertsona zaharrenean– erronka, premia eta kezkei erantzutea beharrezkoa gertatzen da.

Biztanleria-piramidean ikusten ari garen pixkanakako alderantzikatzeak, zahartze aktibo eta osasungarriko ekimenen abiaraztea edo haien errealitateari egokituriko etxebizitza irisgarritarako eskaera berriek pertsona zaharrentzako erantzun berriak ezinbesteko egiten dituzte orain.

Gaur egun gertatzen da pertsona horiek jadanik etxebizitza baten jabe izan ohi direla, eta, diru-sarrerera murrizak dituzten arren, ezin izaten dutela alokairu-eskaintza publikoek baliatu; aldi berean, haien diru-sarreraren murrizta dela-eta, ezinezkoa gertatzen zaie beren etxebizitzaren efizientzia energetikoaren edo irisgarritasunaren hobekuntzarako birgaitze-inbertsioei ekitea.

Beraz, beharrezkoa da programa bat abiaraztea, halakoa non pertsona horiei ahalbidetu eta erraztuko baitie dauden eskaintzez baliatzea, bai eta aurki egitekoak diren alokairu babestuko etxebizitzaren nahiz pertsona zaharren premiei egokituriko etxebizitzaren sustapenez ere.

Zalantzarik gabe, programa horrek araudia aldatzera behartuko du, alokairuko etxebizitza publikoko programa ezberdinetako prozedurei eta eskuratze baldintzatuko baremoei dagokienez.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren araudi-aldaketak egin ditzan, halatan 65 urte baino gehiagoko pertsona zaharrek, batez ere bakarrik edo beren ezkontidearekin bizi direnek, modua izan dezaten alokairu babestuko eskaintzan parte har-

tzeko, baita jadanik etxebizitza baten jabe direnean ere, baldin eta etxebizitza hori Nasuvinsa sozietate publikoak kudeaturiko Alokairu Poltsaren programarako lagatzen bada.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikerketa-batzorde bat eratu dezan Nafarroako ikastetxe erlijiosoetan egindako abusuak argitzeko.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikerketa-batzorde bat eratu dezan Nafarroako ikastetxe erlijiosoetan egindako abusuak argitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Parlamentu honen Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Abusuak pairatu dituzten haurren elkarteak Parlamentu honetan salatu ditu Nafarroako ikastetxeetan gizon-emakume erlijiosoengandik eskolaume garaian jasandako abusuak.

Delitu-egintza horiek frankismo-garaian gertatu ziren, errepresio-testuingurua halakoa zenean non abusu horiek ezkutatuak, eta horien pairatzaile ziren haurrak hertsatuak eta erreprimituak izan baitziren, horrek zekarren sufrikario erantsiarekin.

Ezinbestekoa da gertaturiko guztiaren aitorpena, biktimentzako erreparazioaren eta erreplikapenik ezaren berme gisa.

Gertaturikoak ikertu eta epaitzeko bidezko diren zuzenbidezko ildoak urratzeari uko egin gabe, beharrezko deritzogu ikerketa bat hasteari.

Horregatik aurkezten dugu erabaki proposamen hau:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikerketa-batzorde bat era dezan, Nafarroako ikastetxe erlijioso batzuetan gertaturiko abusuak argitze aldera, abusuak pairatu dituzten haurren elkarteak salatuturikoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki deritzon prozedura abiaraz dezan, kalteturiko pertsonak modua izan dezaten horrelako egintzak azaltzeko eta salatzeko.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero



**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz dei diezaien Nafarroak Transferentzia Batzordean dauzkan ordezkari, trafiko eta bide-segurtasunaren arloko eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea gauzatzeko, halako moduz non trafikoko Guardia Zibila ez den gabetuko egun dituen eginkizunez.**

*NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urgentziaz dei diezaien Nafarroak Transferentzia Batzordean dauzkan ordezkari, trafiko eta bide-segurtasunaren arloko eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea gauzatzeko, halako moduz non trafikoko Guardia Zibila ez den gabetuko egun dituen eginkizunez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloko eskumen eskusiboaren berreskurapena Parlamentu honetako indar politiko guztiak amankomunean duten helburua da.

Babes mardula duen nahi horren frogak eskaintzen digute Legebiltzarreko Bilkura Egunkariak, bai eta Nafarroako Gobernuaren ordezkari batzuek eta besteek gutxienez ere azken hogeitau urte hauetan eginiko zuzemenek eta harturiko erabakiek.

Egia da herritarren kezka nagusia betiere izan ohi dela jasotzen duten zerbitzuari buruzkoa, are

zerbitzu-emate den administrazioa zein den konputatu hartu gabe ere; baina, horrekin batera, oso garrantzitsua da, Nafarroaren foru eskubideei eta autogobernari dagokienez, historikoki Foru Komunitatearena izan den eskumen baten berreskurapena eta egikaritzea, zerbitzuak beharrezko duen eraginkortasun eta efizientziarekin eskumena egikaritzeko behar adinako gaitasuna eta bitartekoak dituelarik.

Eskumen-hartzea eta -eskualdatzea ukituriko administrazioen arteko akordioaren bidez, eta ez besteren bidez, egin beharrekoa da, eta administrazio horiek dira Nafarroako Gobernua eta Estatu Administrazioa, Transferentzia Batzordearen baitan; beraz, Foru Komunitateari arrotza zaion beste ezein erakunde edo agenteren esku-sartzerik gabe.

Bestalde, Nafarroak trafiko-eskumenak osoki hartzeak inola ere ez du Nafarroako Gobernua behartzen Guardia Zibilarik kentzera Nafarroako errepideetan eraginkortasunez betetzen dituen zereginak.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz dei diezaien Nafarroako Transferentzia Batzordean dauzkan ordezkari, trafiko eta bide-segurtasunaren arloko eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea gauzatzeko, halako moduz non eskualdatze horrek ez duen trafikoko Guardia Zibila gabetuko gaur egun Nafarroako errepideetan betetzen dituen eginkizunez.

2. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Nafarroaren ordezkariarik Gorte Nagusietan ez duten alderdi eta erakundeek eskua sar dezaten edo zilegitasunik gabe har ditzaten Foru Komunitatearen afera eta interes eskusibo direnak.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non eragotzi eginen baita adingabeei egindako sexu-abusuen delituen preskripzioa, edo gehieneko preskripzioepeak handituko baitira.**

### *JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non eragotzi eginen baita adingabeei egindako sexu-abusuen delituen preskripzioa, edo gehieneko preskripzioepeak handituko baitira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Jabi Arakama Urtiaga, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

2019an “Abusuak pairatu dituzten haurren elkarte” sortu izanari esker –sexu-abusuak pairatu dituzten pertsonen lehen elkarte da Espainiako estatuan– eta elkarteko kideek nahiz beste pertsona batzuek pairatu zituzten abusuen salaketa publikoan elkarteak egindako lan handiari esker, eztabaida publikora eraman ahal izan da haurtzaroan abusuak pairatzen dituzten haurren errealitatea. Urte eta are hamarkadetan zehar isildu da errealitate hori, biktimizazio bikoitza ekarrita, eta isiltasun horretan datza hain zuzen ere erasotzaileen immunitaterako konplizerik handiena. Halatan, desadostasun larria dago adituen iritzia eta Espainiako Zigor Kodearen artean; izan ere, adituek diote ohikoa dela urte askotxo igarotzea abusuak pairatu dituzten haurrak abusu horiek jaso izanaz kontziente izan arte, eta are urte gehiago abusu horiek salatzeke gai diren arte (baldin eta salatzerira iristen badira), eta Zigor Kodeak, berriz, delitu horietarako motzegia den

preskripzioaldia ezartzen du. Delituaren larritasuna gorabehera, adingabeen aurkako sexu-indarkeriako delituen preskripzioa 5etik 15 urtera bitartekoa da biktima adin-nagusitasunera iristen denetik aitzina; epe hori ez da aski salaketa horietako asko artatuak izan ahal daitezen, delitu horien ezaugarri bereziak ikusita.

Bestalde, arestian aipatutako isiltasunak sarritan eragiten du zailtasun handi-handiak egotea adingabeei eragindako sexu-abusuen kasuak behar bezala artatzeko. Horrekin guztiarekin bukatu beharra dago ezinbestean, delitu horien prebentzio-, identifikazio- eta salaketa-jardunbide egokien bidez bukatu ere. Horrek exigitzen du hezkidetzeta eta hezkuntza afektibo-sexuala sustatzea, biktimak artatzen dituzten profesionalen prestakuntza hobetzea eta jarduketa-protokolo eraginkorrak prestatzea.

Azkenik, eta erasotzaileak hamarkadetan zehar babestu dituen zigorgabetasuna ikusita, beharrezkoa da biktimei ahal den neurrian erreparazioa ematea. Biktimek –bereziki, orain dela urte askokoek– ez dute beti lortuko gertatu zitzaiena egiaz jakitea, eta litekeena da kasu bakan batzuetan lortzea egiazko justizia; hortaz, ezinbestekoa da haiei errekonozimendu publiko bat ematea, ahal den neurrian konpondu ahal izateko haiekin egindako balizko injustizia.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non eragotzi eginen baita adingabeei egindako sexu-abusuen delituen preskripzioa, beste delitu batzuen kasuan gertatzen den moduan, edo, halakorik ezean, handituko baitira gehieneko preskripzioepeak.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkidetzeta eta hezkuntza afektibo-sexuala bultzatzen jarrai dezan Nafarroako ikastetxe guztietan, hori baita neurririk onena prebentziorako eta, gisa horretako delitu bat gertatuz gero, adingabeen aurkako sexu-abusuak identifikatzeko eta salatzeke.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa-protokolo bat presta dezan Hezkuntza, Osasun, Justizia, Eskubide Sozial eta Lehendakaritza, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Barne departamentuen bidez, erakunde publikoen arteko koordinaziorik onena bermatuko duena, profesionalei arlo horretako prestakuntzarik onena bermatuko diona eta sexu-abusuen biktima diren adingabeei nahiz haien familiei laguntza azkar, eraginkor eta integrala eman ahal izatea ahalbidetuko duena.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekitaldi publiko bat egin dezan 2020ko azaroaren 19an –Haurren Sexu-abusua- ren Prebentziorako Nazioarteko Eguna–, adingabeen aurkako sexu-abusuen biktima guztiei errepazioa emateko.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

## **Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da beharrezkoa den araudia alda dezan, erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoren irakaskuntzaren ordu-zama estatu-mailako araudiak ezartzen duen nahitaezko minimora murriztu dadin.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita beharrezkoa den araudia alda dezan, erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoren irakaskuntzaren ordu-zama estatu-mailako araudiak ezartzen duen nahitaezko minimora murriztu dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Joan den asteazkenean, urtarrilak 15, Hezkuntza Batzordeak bazter utzi zuen erlijioaren

irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzko Foru Lege proposamenaren (10-19/PR0- 00014) artikulua bakarra.

Izquierda-Ezkerrak bultzaturiko lege proposamen errefusatu horrek xede zeukan minimora murriztea, jadanik 2020/21 ikasturtetik aurrera, erlijio-irakasgai zehatzaren eta haren ordezkoren eskola-zama (bi ordutatik ordubetera), estatu-mailako oinarrizko araudiari jarraikiz, zeina nahitaez bete beharrezkoa baita Nafarroako hezkuntza-maila guztietan.

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak egin zizkion aldaketen ondoren, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak –18. artikuluan, Lehen Hezkuntzarako; 24. eta 25. artikuluetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, eta 34. bis eta ter artikuluetan, Batxilergorako– erlijioaren irakaskuntza hezkuntza-maila horietako berariazko irakasgaiaren artean jasotzen du; bigarren xedapen gehigarriaren arabera, eskaintza hori ikastetxeentzat nahitaezkoa eta ikasleentzat borondatezkoa izanen da, erlijio katolikoaren kasuan.

Xedapen horiek honako errege dekretu hauen bidez garatu izan dira: 1630/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen; 126/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Lehen Hezkuntzako oinarrizko curriculumak ezartzen duena; eta 1105/2014 Errege Dekretua,

abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko oinarrizko curriculum-a ezartzen duena.

Arau horiek garatzea eta aplikatzea eta irakas-torduek ezartzea autonomia erkidegoei dagokie; Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikulua aitortzen dizkion eskumenak baliatuz.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak legezko ahalmena dauka eta, beraz, modua, legea baino maila baxuagoko araudia aldatzeko, eta halatan erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoren irakaskuntzaren minimoratzeko gauzatzeko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du beharrezkoa den araudia hiru hilabeteko epean alda dezan, halako moldez non erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoren irakaskuntzaren orduzama estatu-mailako araudiak ezartzen duen nahitaezko minimora murriztuko baita eta murriztapen hori hurrengo 2020-2021 ikasturtean indar osoz aplikatzeko modukoa izanen baita.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordu-muga bat ezar diezaion azalera handiko saltokien irekialdiari, eta Espainiako Gobernua premia dezan autonomia erkidegoen eskuetan uztera igande eta jaiegunetako irekialdien zehaztapena.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ordu-muga bat ezar diezaion azalera handiko saltokien irekialdiari, eta Espainiako Gobernua premia dezan autonomia erkidegoen eskuetan uztera igande eta jaiegunetako irekialdien zehaztapena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten foru parlamentarien elkarteek eta talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ordu-muga bat ezar diezaion azalera handiko saltokien irekialdiari, eta Espainiako Gobernua premia dezan autonomia erkidegoen eskuetan uztera igande eta jaiegunetako irekialdien zehaztapena.

Saltokien irekialdiari buruzko eztabaida eta, batez ere, ordutegiei eta jaiegunei buruzkoa, zenbait arrazoiengatik nagusituz joan da. Lehenik eta behin, gizartea eta langile-jendea gero eta jabetuago gaude ezen lanari eskaintzen diogun denborari muga bat jartzeak ez duela soilik produktibitatea areagotzen, baizik eta osasungarria ere badela, familiako bizitza lanarekin uztartzearen ikuspegitik.

Hain zuzen ere, zenbait dendak eta azalera handiko saltokik, azken eguberri hauetan bertan,

erabaki zuten ez irekitzea jaiegunetan, beren langilerien ongizatea aintzat harturik. Ez dago jaiegunetan ez eta gaueko ordutegian lan egiteko beharrik, ez eta ordu horietan kontsumitzeko beharrik ere.

Urtarrileko merkealdian, Conforama bezalako azalera handi batek erabaki zuen bere saltokia 24:00ak arte irekitzea. Gainera, 22:00etatik 24:00etara bitartean agertzen ziren bezeroei 100 euroko saria ematen zien 500 euro baino gehiagoko erosketa eginez gero. Aurrekaririk gabeko urratsa, arbitrarioki eta aldebakartasunez erabakita-koa.

Saltokiak ireki bai ala ez arautzen duten akordioek ez dute eraginik jabeengan eta langileriarengan bakarrik: erabaki horien azpitik datza nahi dugun gizarte-ereduari buruzko eztabaida. Onartezina da azalera handi bat 24:00ak arte ireki nahia, horrek ehunka langileren bizimodua hausten baitu; batez ere, lanaldi zatituak egiten baldin badira.

Halaber, konpli da gogoeta egitea egun berezietako ordutegiei buruz, hala nola abenduaren 24a eta 31 eta urtarrilaren 5a. Zentzutasun hutsekoa da egun horietako ordutegiak arrazionalizatzen saiatzea.

Izan ere, abusuzkoak diren horrelako ordutegiek ez dituzte ukitzen azalera handi horietan lan egiten duten pertsonen eskubideak bakarrik; horrez gain, inpaktu negatiboa izaten dute merkataritza txikiaren ehundurari. Azken urteotan, merkataritza txikiko establezimenduak bezala haietan diharduten langileen kopurua ere gutxitzen joan da.

Bestetik, Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea guztiz baldintzaturik dago ordutegiak eta jaiegunetako irekialdia arautzen dituen estatu-mailako dekretuak xedatzen duenera. Horregatik, funtsezkoa da estatu-mailako legediak autonomia erkidego bakoitzaren eskuetan utz dezan gai horren araupetzea egitea, tokian tokiko errealitate turistikoa, ekonomiko eta sozialaren arabera.

Esate baterako, Kataluniak merkataritzari, zerbitzuei eta feriei buruzko abuztuaren 1eko

18/2017 Legearen 36.a artikuluan ezarri zuenez, “merkataritza-establezimenduek ezin dute irekita egon, ez eta salmenta-jarduerarik egin ere, urritik maiatzera bitartean, biak barne, 21:00etatik 06:00ak arte; eta ekainetik irailera arteko hilabeteetan, biak barne, 22:00etatik 07:00ak arte”. Muga hori ezartzen da 37. artikuluan zehazturiko salbuespenekin, eta errespetatu egiten ditu saltoki txikiak eta interesekoak diren beste jarduera batzuk.

Nolanahi ere, Nafarroak zentzuzko mugak jarri ahal eta jarri behar dizkie lehen aipaturiko abusuari, bere eskumenak egikaritzuz eta ixte-ordutegian gehieneko bat zehaztuz; betiere, bai estatu-arauak bai Foru Komunitatekoak jasotzen dituzten xedapenak beterik, normala denez.

Horregatik guztiagatik, ondokoa erabaki dadin proposatzen da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mugatu dezan azalera handiko saltokien ixte-ordutegia, jardunik gabeko ordu batzuk ezarriz, zenbait autonomia erkidegok jadanik egiten duten bezala.

2. Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresuari eskatzen dio alda dezan 1/2004 Legea, abenduaren 21ekoa, merkataritza-ordutegiei buruzkoa, zeina aldaturik gertatu baitzen aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren V. tituluak xedatutakoaren ondorioz. Helburua da autonomia erkidego bakoitzak zehatz dezala zer igande eta jaiegunetan izanen duten irekitzeko aukera saltoki handiek.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio kanpaina bat egin dezan gizartearen, kontzientziazte-lana egiteko igande eta jaiegunetan erosteak hainbat arlotan duen eragin negatiboari buruz.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Mikel Asiain Torres, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero



## **Mozioa. Horren bidez, erakunde publikoak premiatzen dira lurralde kohesioari eta gizarteari begira bidera ditzaten tren-inbertsioetara bideratuta dauden baliabideak.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez erakunde publikoak premiatzen baitira lurralde kohesioari eta gizarteari begira bidera ditzaten tren-inbertsioetara bideratuta dauden baliabideak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Azken urteotan behin eta berriro saiatu dira kentzen Tafallako, Altsasuko eta Castejón bezalako tren-geltokietako txartel-salmentako zerbitzua. Halaber, geltoki horietan gelditzen den tren-kopurua murriztu egin da azken urteotan, eta, Lurralde

Kohesiorako kontseilariak berak onartu zuen moduan, herritarrek ia ez dituzte horiek erabiltzen aldirietara egindako joan-etorrietarako.

Horren guztiaren atzean dagoen arrazoia da zenbait erakundek apustu egin dutela abiadura handiko tren-eredu garestiaren alde, urrutirako joan-etorriak lehenesten dituen eta Nafarroako eremu ezberdinen arteko kohesio eta garapen integraturako lana desagertzea dakarrena, desagertu egiten baitira bideko geltoki askok ematen zituzten eta, horietan hobetzeko inbertsio bat egin ostean, eman litzaketen zerbitzuak.

Hortaz, are gehiago datuek argi utzi dutenean egungo trazadura hobetu eta optimizatuak salgaien garraiorako duen ahalmena, beharrezkoa da eztabaida bere onera ekartzea eta Nafarroako Parlamentuaren jarrera lehenetsia zehaztea.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak trenaren egungo trazadurak lurralde kohesioari eta gizarteari begira duen eginkizuna lehenesteko konpromisoa adierazten du. Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak erakunde publikoak premiatzen ditu esparru horretara soilik bidera ditzaten Nafarroan tren-inbertsioetara bideratuta dauden baliabideak.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen baitio Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen aurka jarritako konstituzio-kontraktasuneko errekurtsioa erretira dezan.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio baliorik gabe utz dezan, azaltzen diren arrazoi eta argudioak aintzat hartuta, Ministroen Kontseiluak 2020ko urtarrilaren

14an hartutako erabakia, eta hartara erretira dezan Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen aurkako errekurtsioa” (10-20/DEC-00005).

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzen baitu Voxek aldarrikaturiko eta PP eta Ciudadanosek aldezturiko hezkuntza-zentsura ezartzea.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzeko du Voxek aldarrikaturiko eta PP eta Ciudadanosek aldezturiko hezkuntza-zentsura ezartzea, zeinaren asmoa baita ikastetxeetan lantzen diren hezkuntza-edukiak manipulatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du konpromiso irmoa duela Vox, PP eta Ciudadanosek, bai eta talde ultrakontserbadoreek ere, berdintasunezko eta balio demokratikoetan oinarrituriko hezkuntzaren aurka eginiko erasoak borrokatzeko. Aurreko legegintzaldian ikusi izan ditugu jada horrelakoak, Skolae programaren eta haren sustatzaileen aurkako boikoterako eta sorgin-ehizarako deiarekin.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du eskuineko alderdien desbide zentralista, doktrina-

tzaile eta kontrolatzailearen aurrean aldeztu egiten dituela hezkuntza-erkidego guztiaren profesionaltasuna eta independentzia.

4. Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten ditu eskuin muturreko erakunde jakin batzuk egiten ari diren erasoak, zeinek urratu egiten baitituzte ikasleen hezkuntza integral eta orekaturako eskubidea eta balio zibikoaren araberrako heziketarako eskubidea.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazten du konprometituta dagoela bermatzera pentsamendu-pluraltasuna eta berdintasun-, bizikidetasun-, begirune- eta tolerantzia-printzipioen araberrako heziketa; hots, gizarte demokratiko batek derrigorrezko hezkuntzako ikasle guztiei irakatsi beharreko araberrakoa, Europako Kontseiluak gomendatzen duen bezala” (10-20/DEC-00006).

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak, txera eta amultsutasuna adierazten baitizkio Aiegiko zortzi eta bost urteko Ixeya eta Daniel Pérez Pascual haurren familiari, haiek hilik gertatu ziren-eta joan den ostiralean Lizarran izandako talka izugarriaren ondorioz.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere doluminak, txera eta amultsutasuna adierazten dizkio Aiegiko zortzi eta bost urteko Ixeya eta Daniel Pérez Pascual haurren familiari, haiek hilik gertatu ziren-eta joan den ostiralean Lizarrako Karlos VII. aren kalean izandako talka izugarriaren ondorioz.

2. Nafarroako Parlamentuak bere aldekatasun eta elkartasuna adierazten du ezbehar horrek kal-

teturiko pertsonen familiekiko, bai eta Lizarrako eta Aiegiko herriekiko ere, eta zaurituei oneratzeko bizkorra opa die.

3. Erabaki da adierazpen instituzional hau istripuan hildakoen familiari eta Aiegi eta Lizarrako udalei igortzea” (10-20/DEC-00007).

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

### **Galdera, Nafarroan despopulazioaren ondorioak leuntzeko jarduketei eta horien kostuari buruzkoa.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan despopulazioaren ondorioak leuntzeko jarduketei eta horien kostuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

**1.** Nafarroako Gobernuak zer ekintza zehatz (lekuak eta ekintzak) egingen du Nafarroan despopulazioaren ondorioak leuntzeko?

**2.** Nafarroako Gobernuak despopulazioa gerrazte aldera egingen dituen ekintzek zer kostu dute?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

---

### **Galdera, Erresuma Batuko Brexitarengatiko ekintzei eta kostu ekonomikoari buruzkoa.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Erresuma Batuko Brexitarengatiko ekintzei eta kostu ekonomikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Nafarroako Gobernuak zer ekintza darabil gogoan Erresuma Batuko Brexitak berehala ekarriko duen agertokirako?

2. Nafarroako Gobernuak ba al daki Brexitak Nafarroako ekonomian zer kostu izanen duen gutxi gorabehera?

3. Nafarroako Gobernuak zer komunikazio-ekintza darabil gogoan enpresei eta herritarrei begira?

4. Gobernuak zer ekintza abiaraziko du Erresuma Batuko nafarren eskubideak babesteko eta horiei segurtasuna emateko?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

---

## **Galdera, talentudunen itzulerari eta “Estrategia Next” izeneko ezarri zenetik izandako emaitzei eta lortutako helburuei buruzkoa.**

**ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, talentudunen itzulerari eta “Estrategia Next” izeneko ezarri zenetik izandako emaitzei eta lortutako helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Nafarroako Gobernuak zer ari da egiten talentudunak itzul daitezen?

2. 'Estrategia Next' izenekoak zer emaitza izan du eta zer helburu bete ditu ezarri zenetik gaur arte?

3. Talentudunak itzultzeari dagokionez zer helburu eta ekintza zehatz ezartzen dizkio bere buruari Nafarroako Gobernuak 2020rako?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra



## **Galdera, sorkuntza artistikoa sustatzeko politiken arloko jarduketa-ildo nagusiei eta ekimen berriei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, sorkuntza artistikoa sustatzeko politiken arloko jarduketa-ildo nagusiei eta ekimen berriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ez dugu sorkuntza artistikoari buruzko ez hausnarketarik ez jarraibide zehatzik aurkitu Kulturako kontseilariak bere jardunbide nagusiak azaltze aldera egindako agerraldian, ez eta haren adierazpen publikoetan ere. Hortaz, parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut sorkuntza artistikoa sustatzeko ekimenei eta politikei dago-kienez:

– Arlo horretan ezarri nahi dituen ekintza-ildo nagusiak eta ekimen berriak.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Barañaingo Auditorioaren funtzionamenduari eta kultur programazioari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Barañaingo Auditorioaren funtzionamenduari eta kultur programazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut Barañaingo auditorioari eta haren funtzionamenduari eta programazio kulturalari dago-kienez:

– Zertan da Nafarroako Gobernuaren lankidetzat, auditorioaren funtzionamenduari dagokionez? Zer ekimen eta jarduketa abiaraziko ditu ildo horretan?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, ARCO nazioarteko arte garaikidearen azokari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, ARCO nazioarteko arte garaikidearen azokari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

ARCO nazioarteko arte garaikidearen azokari dagokionez, parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut:

– Ea Kultura Departamentuak inolako ekimenik edo lagun-egiterik abiaraziko duen Nafarroako arte- eta erakusketa-adierazpide eta -ekimen garaikideei dagokienez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren eta korporazioa osatzen duten 16 sozietateen egituren zerbitzuko langileei buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren eta korporazioa osatzen duten 16 sozietateen egituren zerbitzuko langileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren eta korporazioa osatzen duten 16 sozietateen egituren zerbitzuko langileei dagokienez:

Lehena. Galdera hau argitaratzen den egunean Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren egiturekin lan-kontratu bidezko harremana duten pertsonen kopurua (korporazioa osatzen duten sozietate publiko guztiak barne), eta langileria-gastu osoaren zenbatekoa.

Bigarrena. 2015eko urtarrilaren 1ean Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren egiturekin lan-kontratu bidezko harremana zuten pertsonen kopurua (korporazioa osatzen duten sozietate publiko guztiak barne), eta horien guztizko kostua.

Hirugarrena. Orobat jakin nahi dut zer bilakae-  
ra izan duten 2015etik 2020ra bitarte (urtez urte, galdera hau argitaratzen den egunera arte) arestian eskatutako datuek (langile kopurua eta horien kostua).

Laugarrena. Lehenengo, bigarren eta hirugarren galderetan eskatutako datuak, banan-banan eta xehe-xehe, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten 16 sozietate publikoetako bakoitzari dagokionez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Uxueko monumentu-multzoari buruzkoa.**

### *ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Uxueko monumentu-multzoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Uxueko eliza-gotorlekua Nafarroako errege-erreginek eraiki zuten erresumaren hastapenetan, bertako babes-sistemaren parte garrantzitsua izan zedin; halere, Iruñeko elizbarrutiak beretzat hartu zuen 2006ko urtarrilaren 4an. Hala da, bai. 2006ko urtarrilaren 4an, Aznarren Gobernuaren dekretu baten bidez Hipotekei buruzko Legearen Erregelamendua aldatu ondoren –legearen 206. artikulua, hain zuzen ere–, Iruñeko elizbarrutiak, horretaz baliatuta, bere izenean inskribatu zuen Uxueko eliza-gotorlekua jabetza-erregistroan. Eskriturretan 219.000 euroko balioa eman zitzaion santutegiari. Bere izenean jartzearen gastua ez zen, guztira, 30 euro baino gehiagokoa izan.

Nafarroako Gobernuaren webgune ofizialak 2012ko apirilaren 12an jakinarazi zuen Uxueko

eliza zaharberritzeko obrak bukatutzat eman izana, hamar urte lanean egin eta gero. Foru Komunitateko Administrazioak egindako ekarpena, guztira, 5.576.189,62 eurokoa izan zen. XV. mendeko parroquia-etxeko lehendabiziko bi solairuetan monumentuaren azalpen-erakusketa bat paratzeko, beste 35.736,30 euro inbertitu ziren. Elizaren zoruan eta erakusketa-geletan irradiatzeberokuntza paratu zen, baina ez da inoiz ere pizten, gastuak ekiditeko. Etxe horren hegal bat baliatuta, igogailu bat paratu zen barnealdean, beheko solairua (plazaren mailan) eta eraikinaren lehen solairua eta elizaren ataria lotzen dituen. Monumentua azaltze aldera gela eder horietan paratutako panelek turistari ahalbidetu beharko liokete oinarritzko informazioa lortzea monumentu-multzoa zer den eta zer izan zen jakiteko.

Salatu denez, 2012tik zortzi urte joan diren arren, ezerk ere ez du funtzionatzen. Erakusketa-gelak ez dira irekitzen, eta igogailua ere ez da mugiarazten. Uxuera iristen den turistak santutegia ikusi nahi du, baina nabe gotikora eta erronda-ko pasealekura baizik ezin da sartu.

Gainerakoa –korua, santutegiko gaingangak, dorreak, parroquia-etxeko Erdi Aroko aretoak– itxita dago. Erromanikoa eta gotikoa bereizten dituen burdin hesiak itxita daude. Turistak zortea badu eta parrokoa aurkitzen badu, baliteke parrokoa haiekin joateko prest azaltzea, berak beste inork ez duelako giltzarik; baina kanpoan izaten da sarritan, edo ezinezkoa gertatzen zaio giltzak inori uztea.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

Uxueko monumentu-multzoa zaharberritzeko laguntzak eman zitzaizkionean, inolako baldintzarik ezarri al zitzaion Artzapezpikuari, haren erregistro-titularra den aldetik, hura ikustera eta

gozatera hurbiltzen diren bisitariek gela guztiak eragozpenik gabe eta doan bisitatu ahal izan ditzaten?

Nafarroako Gobernuak nola bermatuko du monumentu-multzoko gela guztietarako sarbidea, Artzapezpikutzari monumentu-multzoa zaharberritzeko 5.576.189,62 euroko dirulaguntza eman eta gero?

Zuen ustez, Nafarroako Artzapezpikutzak ba al du monumentu-multzoko gela guztietarako sarbidea murrizteko eskubiderik, dirulaguntza publikoetan diru hori guztia jaso eta gero?

Nafarroako Gobernuaren ustez, kontuan hartuta eliza-gotorlekua Nafarroako errege-erreginek

eraiki zutela eta bertako obrak Nafarroako botere publikoek ordaindu izan dituztela beti –bereziki, 2012an bukatutako zaharberritzea, 5.576.189,62 euroko kostua izan zuena–, auzitegietan defendatu beharko al lituzke bere jabetza-eskubideak, Artzapezpikutzak 2006an egindako immatrikulazioaren aitzinean?

Nafarroako Gobernuak ba al du jabetza-eskubide horiek aldezteko inolako ekintza judizialik abiarazteko asmorik?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

